

# ZAINITZA LANAK GAIZKI ZAINDUTAKO ARDURA KOLEKTIBO HORI



*Urtebete igaro da, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean, 70 herrialde baino gehiagotan greba feminista deitu zenetik. Milaka izan ziren 2018ko martxoaren 8an lantegietan, etxeetan, merkatuan eta hezkuntzan beren jarduna gelditu zuten emakumeak\*. Borroka feministak tinta morez data historiko bat markatu zuen egutegietan, eta mugarría jarri bere bidean. Iazko planteamenduaren ildo beretik tira eginez, pauso bat harago doa aurtengo greba deialdia: egun osoz planto egitea. Emakumeek egiten dituzten lanen faltan sostengatzen ez den sistema kapitalista, heteropatriarkal eta kolonialistari hordago zuzena.*

#### AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

**S**istemak gure bizitzak zeharkatzen dituen gero, berau desafiatzeko geure buruak ere desafiatzeko geure ezinbestean, ordea. Emakumeek egun batez planto egiteko planteamenduak, sistemaren oinarrietan ez ezik, gu guztion egunerokotasunean ere eragiten baititu trabak eta deserosotasunak: iaz egiaztatutako zenez, espazio publikoan zein pribatuan emakumeek egin ohi dituzten lanak airean geratzen direnean, azalerratu egiten dira jendartearen erdia menderatu ezean bizitzeko antolatzeak ditugun ezintasunak. Horrek geure bizitzetan ere egiten du isla, bizi dugun desparekotasuna nabarmen egiteraino. Horregatik da, hain justu, greba feminista eraldaketarako tresna boteretsu: norbere kateen kontzientzia hartzeak eragiten duen deserosotasuna iraultzarako erregai izan

daitekeelako. Euskal Herriko Mugimendu Feministak grebari begira publiko egin duen dossierrean ohartarazten duenez, eraldaketa feminista eman dadin gatazka beharrezkoa baita, "berezi gatazka politikotik kanpo geratu diren eremuetan". Zaintzarena da eremuotako bat, eta iaz hasitako lanari jarraiki, berau arrakalatzera dator aurtengo greba.

#### **ZAINTZEN ARDURA: PRIBATUTIK KOLEKTIBORA**

Zaintzaren eremua gatazka politikotik at geratu bada, logika kapitalista heteropatriarkal espazio publikoan eta pribatuan egiten diren lanak bereizten dituelako da. Bereizketa horrek publikoan kokatu eta balioa eman die lan-merkatuan egiten diren soldatapeko lanei (lan produktibo deituak), eta bizitzaren





sostenguari dagozkionak (lan erreproduktibo deituak) eremu pribatuan kokatu ditu, ikusezin eta doako -edo prekario- bilakatuz, bizitzaren sostengurako eta kapitala produzitzeko baliotsuak ez balira bezala. Ondoko datu pareak gauzak beste modu batera ikusten lagundu dezakete: 2016ko Etxeko lanaren kontu satelitearen (Eustat) arabera, EAEn 21.342 euroko gainbalioa ateratzen da bizitzaren erreproduktzioarekin eta zaintzarekin, BPGren %32,4. 2013ko estatistiketan zehaztuta ageri da lan horiei dagokionez generoaren arabera banaketa: %66,7 emakumeak dira eta %33,3 gizonezkoak. Amaia Perez Orozco ekonomialari feministak *Subversión feminista de la economía* (Ekonomiaren subertsio feminista) lanean argi dioenez: “Bizitza sostengatzeko ardura feminizatua dago feminizatua dauden baloreekin lotzen delako”. Ez besterik. Zaintzaren feminizazioa ulertuko bada, beraz, termino politikoetan izango da.

“Emakumeon\* esplotazioari esker lan horiek dohainik ateratzen zaizkio sistemari, zer esanik ez arrazakeriarekin gurutzatzerakoan (...) Kapitalak ezingo luke horrenbesteko aberastasuna metatu lan horiek guztiak dohainik edo lan baldintza okerrean egingo ez balira”, salatu du Mugimendu Feministak. Zaintzaren berrantolaketa soziala eman ezean,

ezein emakume ez dela aske izango argi izanik, zera diote: “Badakigu kapitalismoa ezin dela berregin emakumeak\* azpiratu gabe. Emakumeok planto egiten badugu, dena gelditzen da. Beraz horretara goaz grebara, sistemarekiko haustura eragiteko eta pakto sozial berri bat eskatzeko”. ‘Bizitza erdigunera’, aurtengo greba feministaren aldarria denak helburu horri jarraitzen dio hain justu: bizitzak erdigunean jarriz berauen sostengua ardura kolektibo bilakatzea, gizarte egituraketa osoan eraginez. Emakumeek bizitzak eusteari planto eginez gero, derrigorrezkoa bilakatzen baita bizitza kolektiboki nola sostengatu pentsatzea, bai beroni eutsi nahi badiogu bederen. Eta horrek zuzenki interpelatzen gaitu guztiok. Bizitzan zehar, momenturen batean edo bestean, denok eman eta jaso behar izaten baititugu zaintzak.

### ARDURAK KOLEKTIBIZATZEKO SAIAKERAK

Hasi instituzioetatik eta gizonezkoetaraino, grebak paretaren kontra jartzen du zaintzen banaketa desorekatuarekin lotura zuzena duen oro, airean geratutako zaintzak nola kudeatu pentsatzera derrigortzen baititu. Zentzu honetan, iazko greba feminista proba pilotu gisakoa izan zen, eta zaintzen ardura kolektibizatzeari dagokionez, zenbait saiakerak

ra eredu utzi zituen.

Hezkuntzaren eremua izan daiteke, familia esparruarekin batera, zaintzak kudeatzeari dagokionez greba egunean buruhauste gehien izan ditzakeen eremu bat. Zaintza lanen beharra duen populazioaren zati handi bat biltzen du, ikastetxeetan igarotzen baitituzte haur eta gazteek eguneko ordu dezente. Eta horri, irakasle lanbidea feminizatua dela gehitu behar zaio. Hala bada, ikasleen amek eta emakumezko irakasleek planto egiteak, zaintza lanen kudeaketari dagokionez kinka larrian jartzen ditu ikastetxeak. Iaz, inprobisazioa izan zen nagusi, eta tokian-tokiko ikastetxeek erabaki zuten nola moldatu greba egunean: zentro batzuetan, kolektiboan antolatu beharrean, norbanakoaren esku utzi zen greba egiteko aukera; beste zenbait tokitan klaustroak egin zituzten, eta zenbait zentroetan soilik gizonezko irakasleak lanera joatea erabaki zuten, irakaskuntzaren gainetik zaintza lanak lehenetsiz; bestalde, zuzenean ikastetxeak ixtearen alde agertu zen ikastetxerik ere egon zen.

Askotariko erabaki horien aurrean ikastetxeetan lanketa garrantzitsua egiteke geratu zela iritzita, 2019ko grebara begira aitekin zaintza kolektiboak antolatze beharra azpimarratu zuen Steilas sindikatuak iaz. Ildo horretan lanean

ari diren galdetuta, azkenean gizonak egin beharrekoak ez bideratzea erabaki dutela azaldu du Nagore Iturrioz sindikatuko kideak. Gizonezkoen arteko antolakuntza grebaren aldarrikapen artean egonik, egiteko hori beraien esku uztea zentzuzkoena dela iruditu zaie: “Guk bideratzea, azken finean, berriro ere lana guk (emakumeak\*) egitea litzateke”. Hala bada, ikastetxeak zaintza eremu bilakatzeko gonbidapena egitera mugatu da Steilas, eta behar duenari laguntza eskaintzeko prest azaldu: “Autonomoki antolatu beharko liriateke, baina informazioa behar izanez gero laguntzeko prest gaude”.

Laguntza behar izatearen aurrean ulerkor agertu da Iturrioz: “Guk bota ditugu hainbat proposamen gizon bezala identifikatzen direnentzat, baino praktikara eramatea zaila da. Nola saretu ezezaguna den jendeak umeak zaintza eremu bilakatutako ikastetxeetara eraman ditzan? Ez da hain erraza, eta horregatik diot herritik, auzogintzatik, atera behar den zeozer dela. Hori ondo egituratu beharra dago”. Zentzu horretan iazko martxoaren 8an Donostiako Egia auzoko gizonzkoek egindako lanketa komunitarioari eredugarri deritzo, eta aurrekari hori izanik, ikastetxeei berau ezagutzera ematekotan direla azaldu du, interesa duena “beraiekin harremanetan jarri eta antolatzeko”.

Auzolana ardatz, Egian bezalaxe antolatu ziren gizonak Bilboko San Inazio auzoko Errondoko Auzo Etxean ere. Greba Feministaren baitan gizonak zein paper bete behar zuten hausnartu ostean, zaintza lanak eta eguneko kostu ekonomikoak beren gain hartzea erabaki zutela azaldu du Auzo Etxeko kide Adrián

Gómez Yagüek. Hala bada, egun guztian zehar espazioa irekita mantendu zuten, eta bazkariak kargutu. “Emakumez\* osatutako 35-40 bat pertsonako taldeari bazkaltzen eman genion, eta askari orduan haur bat gurekin utzi zuten”, gogoratu du. “Bagenekien jendea bazkaltzera hurbiltzea posible izan arren, inor gutxi egongo zela familiako kide bat gure kargu uzteko prest. Agian anbizio handiko planteamendua zen”, egin du hausnarke-ta. Auzolanetik jardun arren, Iturriozek mahaigaineratutako erronkarekin egin zuten topo Auzo Etxeko gizonak: nola lortu jendearen konfiantza, zaintzapean dituzten pertsonak halako tokietan eta ezezagunen esku uzteko?

Aurtengo greba egunean ere gizonen artean antolatzeko proposamena asanbladara eramateko asmoa dutela aurreratu du Gómezek, eta iazkoak baino harrera handiagoa izatea espero du. Argi dauka grebak gizonari ere paper bat exijitzen diela: “Ustedut martxoaren 8koa bezalako greba batean gizonzkoen papera garrantzitsua dela, inolaz ere ez printzipala, baina bai beharrezkoa gure diskurtsoan ‘feminismoaren aliatu’ bagara. (...) Hala-eko ekintza txiki batek, sinbolikoa izan arren, greba egitea erraztu diezaieke emakumei\*”.

Plantoaren beste aldea, zaintza lanen ardura soltatzeari dagokiona, nola bizi

izan zuten kontatu dute Leire Medrano Asenjo eta Ane Labiano Etxebarriak. Biak dira ama, baina bakoitzaren egoera desberdina izanik, ezberdin planteatu zuten greba. Medrano bananduta dago, eta egun horretan haurraren aita ez zen zaintzaz kargutu. Hala bada, familian antolatu ziren zaintzei bide emateko. Bere aita haurrak –ahizparenak barne– zaintzeko prest azaldu zela dio: “Ohikoan, nire aitak zaintzen ditu ilobak, eta egun horretan ere bere ardurapean geratu ziren”. Etxeko emakumeak kalera atera ziren, eta gauez etxeratu arte, aitona arduratu zen haurrez. “Aitak nirekin hartu ez zuen ardura, ilobekin hartu du orain, aitita moduan. (...) Jubilatutako disfrutatzen ikasi du, baita zaintzak ematen duen alde positiboaz ere”, egin du hausnarketa. Aurten era berean moldatuko direla aurreratu du.

Labiano erditu berri zen, eta bere kasuan “zaintza alorreko greba ezinezkoa izan zen”. Haurra gainean atera zen grebara, garrantzitsua goa iruditu baitzitzaien honek titia izatea, greba egitea baino. Etxeko lanak bai, bikotekidearen esku geratu ziren, nahiz eta nobedea izan ez: “Ia beti banatzen

ditugu lanak horrela: berak etxeko lan gehiago egiten ditu, eta nik denbora gehiago eskaintzen diot haurraren zaintzari”. Hori bai, egun hartan bikotekideak bere amari ere bazkaria egin

“

### EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA

## “HORRETARA GOAZ GREBARA, SISTEMAREKIKO HAUSTURA ERAGITEKO ETA PAKTU SOZIAL BERRI BAT ESKATZEKO”







"KAPITALISMOAK ERE ETXKO LANEN BEHARRA DU" MEZUDUN ILUSTRAZIOA  
(SEE RED WOMEN'S WORKSHOP KOLEKTIBOA)

ziola kontatu du, biak batera grebara joan zitezten. Etxeko eta zaintza lanen gaineko hausnarketa ohikoan presente daukatela dio, nahiz eta "egunerokotasunean gauzak zailtzen direla" aitortu. Aurtengo grebari begira, haurraren zaintza tarte batez beregain ez hartzea bideragarri ikusten du, baina ez egun osoz, haurra oraindik txikia delako.

### ORAINDINO EZ GAUDE DENOK

Aurten, iaz ez bezala egun osoko greba deitu denez, emakumeek greba egiteko aurkituko dituzten oztopoak gehiago izango direla aurreikusita daiteke. Iazkoan norbere kateen kontzientziak pizteko balio izan bazuen, katea motzago ala

luzeago lotuta dagoen erreparatzeko aukera luzatu dezake aurtengoak. Alabaina, erronka mailaz igotzeko beharrik barik, iazko deialdian bertan greba egitea eragotzerainoko mugekin topo egin zuen hainbatek.

Ziurrenik, greba egiteko zailtasun gehien duten emakumeen sektorea etxeko zaintzaileena da gurean. Gehienak migratzaileak izanik, zapalkuntza hirukoitzaren -arrazak, klasea eta genero-ajeak pairatzen dituzte: inork egin nahi ez dituen lanak egiten dituzte, adinekoen zaintza lanak kasu. Malen Etxea elkarteak Silvia Carrizo argi mintzatu zitzaion honen bueltan Malen Aldalur kazetariari: "Emakume atzerritarrek

menpekotasun eta esklabotza egoeran behar ditugu, Euskal Herriko gure zaintza sareak hornitzeko". Greba eguna ez da salbuespena.

2017ko uztaileko data daraman 64. Euskal Soziometroan adierazten denez, adineko pertsonak zaintzeko modurik egokiena zein den galdetuz gero, familiarreko zaintzaren aldeko iritzia gailentzen da. Aukera honen atzetik, adinekoa kontratatutako pertsona batek etxean bertan zaintzeko aukeraren alde egiten du gehiengoak, eta hor sartzen dira jokoan etxez etxeko zaintzaileak edo etxeko langileak. Lehenengo kasuan, zaharren egoitzetan gertatzen den moduan, langileak enpresa pribatuen bitartez azpikontratatzeko joera nagusitu da, hauen lan baldintzak kaskartzea eragin duena. Etxeko zaintzaileen egoera ez da inolaz ere hobea, datuak eskandalagarriak dira: Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartearen (ELE) 2018ko estatistikaren arabera, etxeko langileen laurdena ez dago Gizarte Segurantzaren alta emanda, gutxienez %80a atzerritarrek dira, eta %75 inguruk astean 60 orduko gorako lan jarduna du. Baldintza horietan greba egitea ez da edonolako erronka.

"Etxeetako langileak greba egiteko prest badaude ere, zaila da hauen inplikazioa, bizirautea baitute helburu. Gure aldarrikapenak, batzuetan, exijitzen ditugun aldaketak gehien behar dituzte-nengandik urrutiko gelditzen dira", azaldu du emakume migratzaileen eskubideen aldeko Bidez Bide elkarteak Katia Reimberg-ek. Etxeko langile diharduen Oneyda Sáenz-ek azaldu duenez, "gure arazo nagusietako bat elkarrekin batzeko tarterik ez daukagula da, malabarismoak egin behar ditugu ahalik eta emakume gehien biltzeko, etxeetako langileok ez baitauek denborarik, lan hau esklabotza delako". Horrez gain, greban parte



hartzera oztopatzen dien beste arazo nagusi bat ere aipatu du: kaleratua izateko beldurra. Izan ere, “printzipioz langile izate hutsagatik greba eskubidea dugun arren, ez gaituzte langile bezala hautesmaten”, eta horren adierazle argia da lan eskubideei dagokienez daukaten berme falta. Lana galtzearen beldurrez, “denak ez daukate planto egin eta kexatzeko auserdia”, eta hargatik saiatzen da Sáenz “isiltzen diren horiei ahotsa ematen”. Oztopoak oztopo, martxoaren 8an kalera aterako dira: “Ahal dugunok joango gara, baina gaurdanik dakigu gutxi izango gara. Beraz kalera ateratzeko silueta batzuk ari gara egiten, falta direnak errepresentatzeko”.

Iaz, etxeko langileak ikus-

gai egiteko asmoz, Portugaldeko (Bizkaia)

Bizkaia Zubian bu-

rutu zen ekintza

batek eman zion

greba eguneko

egitarauari hasie-

ra Bilboaldean.

Itsasadarren

Ezkerraldeetik Es-

kuinaldeko etxee-

tara lanera igaroko

ziren emakumeak

bistaratzea zuen xede,

azpimarratzeko etxeko

zaintzaile askok ezingo zutelako

greban parte hartu. Aipatu ekintza alde

batera, Sáenzen iritziz, iaz greba anto-

latzerakoan beraien kolektiboa ez zuten

kontuan hartu. Hala ere pozik dago urte-

betean gauzak aldatu direlako, ordutik

beraien egoera mahaigaineratzen aritu

baitira, feminismoaren agenda politiko-

koan txertatzeko. “Kontzientziak sortu

ditugu, bizitzan ari garena ikusarazi, geu

ere pertsonak garelako argi utzi”, dio.

Reimbergen ustez ere, geroz eta ageri-

koago ari da bilakatzen etxeko zaintzaile-  
leen egoera. Hala ere, oraindik nahikoa  
ez dela iritzita, gehiago borrokatu behar  
dela uste du: “Hainbat gauza aldatzeko  
indarrak batu behar ditugu, ez baitago  
aldaketok egiteko borondate politikorik.  
Politikan diharduten pertsonak etxe-  
ko zaintzaileen egoera aldatzeko legeak  
egin behar dituzte, egoera ez baita jasan-  
garria (...) Europari ahaztu egiten zaio  
zaharra dela”. Etxeko langileen egoera  
hobetzea politika alorreko jendeari ba-  
karrik ez, guztioi dagokigula azpimarra-  
tu du, hausnarketara mugatu beharrean,  
esku hartu beharra nabarmenduz: “Asko  
hitz egiten dugu zaintzen kate globalaz,  
baina zer egiten dugu kateokina?  
Zein da gure papera?”. Ildo

horretan martxoaren

8ko greba borrokan

jarraitzeko bultzada

ikaragarritzat du,

baina “egunero

martxoaren 8an

bezala” borro-

katzeko beharra

dagoela dio. Bere

“utopietako” bat,

momentu hauetan,

martxoaren 8an de-

nak kalera ateratzea

baita. Utopia ortzi-mu-

ga, badago norantza ibili

eta zer borrokatu. ●

“

**KATIA REIMBERG**

**“ASKO HITZ EGITEN DUGU  
ZAINTZEN KATE GLOBALAZ,  
BAINA ZER EGITEN DUGU  
KATEOKIN? ZEIN DA GURE  
PAPERA?”**

*\*‘Emakume’ izendapenak genero sistema bitarraz gaindiko gorputz eta identitate askotarikoak barne hartzeko orduan mugak jartzen dituen arren, artikulu honetan aniztasun hori barne hartzen du. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren dossierrean bezalaxe: “Emakume” hitza erabiltzen dugunean heteropatriarkatuak zapalduetako subjektuez ari gara”.*

## ‘ZAINTZAREN ARLOKO ALDARRIKAPENAK’

Zaintzaile eta etxeko langileen lana duindu eta balioesteko xedez, hainbat elkartek erreibindikazioen zerrenda plazaratu dute. Idatzian ondokoak aldarrikatzen dira:

- Profil profesionala duten zaintzaileen eta etxeko langileen lanak egoki definitzea, eta bakoitzaren eginkizunak zehaztea.
- Zaintzailearentzako zein zainduarentzako lan baldintza duinak bermatzea.
- Zaintzaileentzako kontratua aldarrikatzea, eta lanok duintzeko legeak hobetu eta aldatzea.
- Erregulazioa lan eremu honetan diharduten emakumeak kanporatzeko neurria ez bilakatzea.
- Emakume etorkinek bizi dituzten indarkeria eta abusu egoerak kontuan hartzea.
- Zerbitzu sektore pribatuan enpresek langileentzako lan baldintza duinak bermatzea.

